



2012KO MAIATZAREN 17KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko maiatzaren hamazazpian, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu estensoro eta Milagros Madrazo Rada zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- 6 H.J.A. -ITURGAITZAGA-KO URBANIZAZIO PROIEKTUA, 1 FASEAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA.-

Udal zerbitzu administratiboek 6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko urbanizazio proiektuaren lehen faseko kontratazio espedientearen baldintza administratibo partikularren plegua osatu dutelarik eta plegu hau Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzailean aztertu izan delarik, Osoko Bilkurara aurkezten da bere onarpenerako.

Proiektu honen aurrekontua milioi bat lauehun eta hogeita bi mila berrehun eta hemeretzi euro eta hirurogeita hamazazpi zentimotakoa (1.422.219,77 €) da eta bere finantzaketa Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetuta dagoen hitzarmenaren baitan egingo da nagusiki. Lanak prozedura ireki eta lehiaketa bidez esleitzea planteatzen da. Bere espedientearen aurkitzen den berariazko administrazio eta ekonomi baldintzen pleguan zehazten den bezala, erizpideak prezioa (%51); proiektuaren azterketa eta trafikoaren kudeaketa obra garaian (%15); ingurumenarekiko erizpide eta hobekuntzak (%10); Obra plana eta lanen antolaketa (%10); gizarte erizpideak (%2); bermearen epea (%12) izango dira. Lanen burutzea 2012 urteko aurrekontutik finantzatuko da.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzailearen proposamenaren aurrean, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- 6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko urbanizazio proiektuaren lehen faseko kontratazio espedientea onartzea.
- 2.- Lizitazio deialdia egitea.



II.- GERONTOLOGIKOAK HARTZEN DUEN LURSAILA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARI EMATEA.-

Udal honek, 2003ko maiatzaren 12an egindako osoko bilkuran hartutako erabaki bidez, Lazkaoko gerontologikoaren lursaila Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea erabaki zuen. Erabaki horretan esaten denez Gipuzkoako Foru Aldundiari emandako lursailak mila bederatzehun eta hamasei metro karratu (1.916,00 m²) dauzka.

Nolanahi ere gerontologikoak hartzen duen lursail hori, Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatzeko egin diren eragiketetan, bi mila eta laurogeita zortzi metro karratukoa (2.088,00 m²) dela ondorioztatzen da eta hala inskribatu da, eta horren aurrean Gipuzkoako Foru Aldundiari lursaila ematearen akordio berria hartzea egoki ikusten da.

Gipuzkoako Foru Aldundiari gerontologikoa egiteko emandako lursailak, Tolosako Jabetza Erregistroan ondorengo deskribapena du:

"Jabari eta erabilera publikoko partzela, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 17 Hirigintza Jarduketa Arean -Zubizkitza- antolatutakoa, bertan zentro gerontologikoa kokatzeko. Bi mila eta laurogeita zortzi metro karratuko (2.088,00m²) azalera du, eta alde guztietatik udal jabari publikoarekin muga egiten du."

Esan behar da, lursail hau Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatu denean, hutsegitez, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 17. Hirigintza jarduketa Arean -Zubizkitza- dagoela esaten dela 18. Hirigintza Jarduketa Arean -Zubizkitza- dagoela esan behar litzatekenean.

Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatua dago 2233 Tomoan, Lazkaoko 112 Liburuan, 132 Orrian, Finka zbkia. 6822.

Honen aurrean, osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

- 1.- Gipuzkoako Foru Aldundiari gerontologikoa egiteko udal titularitakoa den eta akordio honen aurrekinetan deskribatutako lursaila ematea.
- 2.- Alkatea ahalmentzea akordio hau bideratzeko beharrezko diren dokumentu guztiak izenpetu ditzan.

III.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

